

Martin Kortaberria Larrea

A maila • 1 saria

Gaztea naizela uste dut oraindik, baina zahar izatera doakit sarritan burua. Pitzatuta nagoelako, agian. 18 urte beteak ditut, eta 81ekin imajinatzen dut ene burua, noizbait adin horretara heltzekoa banaiz. Pitzatuta nagoelako, ziur.

Honako hau ez da nire hilartitza, hala ere. Baina bai nire Alter Ego batena, beharbada izan nintekeenarena. Gozatuko duzuelakoan, adio, hau baita nire agurra.



HILARTIZ, C MINOR, OP.1

BAT: Uraren zikloa

Begira han, urrunean, esfera erraldoiak; amaigabeko jolas-toki beltzean, bultzatzen dituzten eskuen menpe dantzan dabiltzan puxtarrien pare. Ez zaitu izutzen iluntasunak, ez handitasunak, ez eta gizadia errotik, Lurra Lur denetik, izutu duen ezjakintasunak ere. Ez zaitu kikiltzen amildegiak, gogamenaren ertzetik pasieran ibiltzeak, behin-betiko eroriaren aukerak. Begira iezaiozu zeure buruari. Hain zara txikia, hain zara xaloa eta leuna, hain garbi eta purua zure bihotza, ezen zu izaterik banu, egun bakar batez balitz ere, aldatu egingo baintuzke nire jakituria, nire jabetzak, nire orbainak, pozik irribarre egiteko.

- Etxeko lanak.
- Aita, gosea!
- E-txe-ko-la-nak. Eta gero afalduko duzu.
- Zer dago afaltzeko?
- Afaria. Segi gelara.

Gelara igo, eta idazmahaiaren aurrean eseri naiz. Eta burua atzeraka bota dut, horrela adierazten dudalako ez daukadala etxeko lanak egiteko gogorik. Zero. Atzo arratsaldean maisuak bidali zituen sei ariketetatik bi bukatu ditut, eta bat erdi bidean utzi. Eta berdin zait amak zer dioen, ez baititut lanak bukatu behar.

Ez zaizkit gustatzen matematikak, eta Lengua Castellana ere ez, andereñoa pronunciaciónekin oso tematuta dagoelako, besteak beste. Ingurunek baditu bere alde onak eta bere alde txarrak. Ornogabeak bost axola zaizkit, eta are gutxiago onddoen erreinua eta uraren zikloa (aurrekoan gelako batek galdetu zion andereñoari ea egiten dugun pixa, ziklo luze hori eta gero, berriz edaten dugun, eta mutu geratu zen une batez. Ba, hori jakiteko, nahiago dut ezer ez jakin),

baina duela bi aste hasi ginen espazioa lantzen eta gogora ekarri dizkit, lau urte nituenean, amonarekin planetez hitz egiten ematen nituen gauak. Eraztunak dituen Saturno da. Laranja, handiena, Jupiter. Martitz Lurretik hurbilen dagoena, gauetan ikusten den lehen gorputz zerutiarra, Artizarra. Eguzkitik gertuen, Merkurio dago, eta urrunago, Urano eta Neptuno, izotz eta ur. Pluton ere urruti dago, baina jada bota dute planeten klubetik. Hor, tartean, nonbait, gu, Lurra. Eta denak ere dantzan ari dira Eguzkiaren inguruan. Ez dut Eguzkira joan nahi, erre egingo nintzatekeelako, baina, Martitzera txango bat egitea espero dut, edo Ilargira besterik ez bada.

Begiak idazmahaiaren kontra jarrita dagoen biolin zorrora joan zaizkit. Eskuin eskuarekin borragoma mahai gainean dantzan darabilkidan bitartean, ezkerarekin zorroa altxatzen saiatu naiz, baina nire besoak ahulak dira. Borragoma alde batera utzi dut eta zorroari bi eskuez heldu diot, belaun gainera ekarriz. Sei urte nituela hasi nintzen biolina jotzen, eta hasieran katu bat estutzen eta itotzen ari nintzela bazirudien ere, denborarekin nota batzuk taxuz ematen ikasi dut. Amak jarri dit behin edo behin Itzhak Perlman-en The Schindler List filmeko soinu bandaren bertsioa, eta ia negar egin nuen, eta esan nion ikasiko nuela jotzen pelikula ikusten uzten bazidan. "Urte batzuk barru" esan zidan.

Biolina zorrotik atera dut, eta jotzen hasi naiz. Suzuki metodoaren hirugarren liburutik, Johann Sebastian Bach-en Minuet bat. Pausuak entzun ditut eskaileretan gora, eta aitak atea zabaldu du, irribarrea ahoan.

- Zer da hori, Bach? -galdetu du. Buruarekin baietz egin diot, jotzeari utzi gabe.- Hi haiz hi artixta.

Atea itxi du eta berriz jaitsi da. Egia esan, gustatzen zait halakoak entzutea. Biolineko irakasleak ere esaten dit talentua dudala eta oso ona izango naizela entseatzen badut. Irribarre egin dut: ze ederra izango litzatekeen Martitzen The Schindler List jotzea.

BI: Ekiren heriotza

Zu ere haziko zara. Zuri ere haziko zaizu bizarra, eta lehen amodioekin barre beste negar egingo duzu, eta hasiko zara bizitza denaz ohartzen. Baina begira iezaiozu, halakoetan, gaur zarenari. Apenas ikusten zaizkizun begiak; apika, ez dute erabat ireki nahi. Sarritan pentsatu izan dut itsutasun metaforikoa bera bertute ikaragarria dela (une egokietan), min bortitzenak, ariman zuzenean eragiten dutenak, lasaitzen baditu. Indartsu bihurtzen zaitu, nolabait. Baina sarritan egon naiz oker, ez baitago ezer kaltegarriagorik ez ikustea -ez ikusi nahi izatea- baino.

Errautsek lur umela jotzearekin batera, ke gris, zerratuari ahotik zein sudurretik ihes egiten utzi diot, masailetan bero usaintsuaren fereka sentiaraz diezadan. Betazalak itxi eta hasperen egin dut. Belar gehiegi zupada batean, laino hertsiki gehiegi ufada batean; begiak gorritzen hasi zaizkit.

- Emaidak pixka bat -bota dit ezkerreko lagunak.
- Nire txanda duk, alua -esan dio eskuinekoak.
- Itzali egin duk -adierazi diet, listua berreskuratzen ahalegintzen naizen bitartean.
- Hire The Schindler List, hori bai itzali dela. Hori bertsio tristea.
- Itsu nengoan -erantzun diot ezkerrekoari.

Zaila da egun euritsuetan porroak erretzea. Eta Donostian egun euritsu asko daudenez, esan daiteke zaila dela Donostian porroak erretzea, bereziki, euria ez ezik, haize bortitza ere hotz eta

malenkoniazko zirimolak egiten ari den egunetan.

- Ze etxeko lan agindu zigutek biharko? –ezkerrekoak.
- “Erromantikoen Gerra”ri buruzko idazlan bat egitea –eskuinekoak.
- Ez zigutek gaur agindu lan hori. Duela aste pare bat esan zigutean –nik.
- Eta egin al duk zerbait? –eskuinekoak.
- Pfff... -karkara ttipi bat bota dut- Oraintxe galdetuz gero ez niake jakingo “Erromantikoen Gerra” zer den ere esaten.

Barre apur bat egin dute. Porro hondatua –geratzen zitzaigun azkena- Urumeara bota eta bakoitzak bere etxeko bideari ekin dio, biolina bizkarrean hartuta eta aterkia zabalik eta osorik mantentzen saiatuz.

Ordu laurden geroago, edo hogei minutu, heldu naiz etxera –Donostiako alokairurik merke eta txikiena aurkitzeko zortea izan nuen-, utzi dut biolina sarreran eta etzan naiz egongelako besaulkian. Telebista piztuta aurkitu dut, ateratzean piztuta utzi dudalako. Ohartu gabe. Purrustada bota dut. “Erromantikoen Gerra” XIX. mendearen bigarren erdian zehar jazo zen gatazka estilistiko musikala izan zen, eragina, gehienbat, Alemanian izan zuena. Erromantiko kontserbadoreek, Brahms, Robert Schumann eta haren emazte Clarak, esaterako, Beethovenen obra musikaren gailur gaindiezintzat hartu zuten; bestalde, progresistek, Franz Liszt buru zutela, Wagnerren musika absolutuaren eredia jarraitu zuten, Beethoven garai berri baten abiapuntu gisa ikusiz.

Eta orain –esan diot neure buruari- hasi hadi guztia ordenagailuko dokumentu batean idazten. Musika karrerak ere bazituen erabat atsegin ez nituen bidezidorrak, azkenean. Arratsaldeko porro-festak erabat zorabiatuta utzi nau. Eta egarrituta. Sukaldera jo dut, hozkailua ireki, eta amaitzeko zorian dagoen ardo brick-etik trago luze bat edan. Akabo geratzen zen ardo apurra. Berriro ere, besaulkian eseri naiz. Eseri-edo.

Telebistan espazioari buruzko dokumentala ematen ari dira. Esatariak bi ideia nagusi aurkeztu ditu Eguzkiaren inguruan. Eguzkiak bi amaiera posible izango ditu: lehen hipotesian, Eguzkiak berotasuna galduko duela dio. Izoztu egingo dela, garrak itzaliko direla. Honen ondorio, Eguzki Sistema bere izarrarekin batera amatatu eta hil egingo da. Bigarren hipotesiak hala dio: Ekik gero eta masa handiagoa hartuko du, gero eta beroago eta handiagoa izango da, eta, halako batean, “Nahikoa!” esango du, eta eztanda egingo du, inguruan dagoen guztia suntsituz eta erraustuz. Porroa lur umelean bezala.

Gogoeta egiten hasi naiz –halakoa bainaiz- eta tristurak bihotza estutu dit. Orain arte beti pentsatu izan dut, izan ere, gure iragankortasunaren jabe izanda, gure hauts bihurtzeko joera saihetsezin horren gainetik, umetan hainbeste maitatu nuen espazioak, planetek, hain handi, hain kolosal, betiko iraungo zutela. Supituan, neure hilkortasunak, eta, batez ere, neure inguruko hilkortasun zaurgarriak egundoko ikara eragin dit. Eta ikusi dut ez dudala nahi, ez dudala errauts bihurtu nahi, ez horrela, nire pisu txikiko egongelan, ardo brick-a hutsik eta mela-mela eginda.

Negar egin dut hamar minutu luzez. Eta gero, Erromantikoen Gerrari buruzko lana idazten hasi naiz.

HIRU: Oso ona

Aditu iezadazu. Ez da behin bakarrik entzungo duzun esaldia. Are gehiago, gehiegitan entzungo

duzu. Hainbestetan, ezen azkenean, han kanpokoek, hitzen funtsa galbidera eramango baitute. Eta ahaztu egingo dituzu esanahiak. Baina aditu iezadazu. Ez iezaiozu inori traiziorik egin; bereziki zeure buruari. Zeure buruari leial zatzaizkion bitartean, doazela besteen kode morala eta iritziak popatik hartzera. Baina saia zaitez zure inozentzia ez galtzen aldi berean. Egundoko inbidia dizut, alajaina. Hain zara txiki-handia, hain etorkizunez betea. Hain zaude prest zeure ingurukoak argitzeko.

Jendetza artean buruak identifikatzearen ahalegina beti izan da esker txarrekoa. Antzoki itzelaren fatxada itzelaren pean, jendetza ateak noiz irekiko zain dago, eta ordura arteko denbora txatxara zentzugabe eta hutsalean pasatzen dute, ohikoa den bezala. Ni ezkutuan dagoen beste ate batetik egoera ikustatzen ari naiz, isilik, buru ezagunen zain. Zigarroa gogoz zupatu dut. Astean bat, kontzertuen aurretik. Urduritasunari aurka egiteko erreminta baino, ohitura trakets eta kaltegarri gisa onartu dut nikotinarenean aldizkako birika-inbasio hori.

- Etorri behar al dituk azkenean? –esan du emakume ahots leun batek nire bizkarrean.
- Hala esan zidaten –ez diot begiratu ere egin, baina nabaritu dut bera ere erretzera irten dela. Nola gustatzen zaigun kaka.- Bost eta erdietan ailegatzekoak zitunan, iristear egongo ditun.
- Ilusioa egingo dik, ala? –esan dit.- Tokitatik etorri dituk, joder, ilusioa egiten dik nahi ta nahi ez.
- Mhm –baiezko keinua egin dut buruarekin, eta buru ezagunen bila jarraitu dut.

Ez da “mhm” soil bat. Egundoko ilusioa egiten dit nire familia, ia osorik, gaur hona Kasakristotik etortzeak. Baina ez naiz gai ilusio hori irribarre eran adierazteko. Eta galdetzen badidate, zergatik ez dakidala esango diet, ez dela garrantzitsua.

Baina, egia esan, halako gertaera batek, familiartekoak hain urrundik zer eta ordu eta laurdeneko kontzertua ikustera etortzeak beldur ikaragarria ematen dit. Ez txarto atera litekeelako (ez lirakeke ohartu ere egingo, eta irteteen dena izango litzateke pozezko negar zotina eta zoriona), neure buruarekin dudan erronka itxuraz asebetetzea ekarriko duelako baizik.

Bart burura etorri zait, karrerako lehen urte haren azken hilabeteetan nire bizitzari eman nion kutsu berria. Erabaki sendo hark, izateari utzi baino lehen egin edo izan nahi nuena erabakitzeak, gaurko egunera gidatu nauen beldur naiz. Oso ona izango nintzela esan zidaten beti, eta, mila zailtasun medio, oso ona izatera heldu naiz, nola edo hala.

Gogoan dut haurra nintzenean oso ona izango nintzela esaten zidatenean zetorkidan irudia. Eta amestu egiten nuen. Bostehun urte barru niri buruz hitz egingo dute gizakiek edo haien lekuan daudenek. Martitzen egundoko kontzertua eman zuen gizon hark.

Horregatik izutzen nau gaurko egunari nire sendiak eman dion garrantziak. Orkestra garrantzitsu bateko kide naiz gaur; neure bidea hasi zuten gehienek euren ama salduko lukete orain nagoen atean zigarro bat zupatzen aritzeko. Eta hala ere, gogamena ez zait lasai geratu. Nolabait, ene burmuin korapilatsu eta okerrean ezkutaturik dagoen ahots txiki batek behin eta berriz errepikatzen dit Martitzeko kontzertua nahi duela. Nahi dudala. Ez familiakoen edo irakasleen oso ona izatearen kontzeptua gogobetetzeko –argi baitago hori lortu dudala-, neure arrakasta goseari (egoari?) jaten emateko baizik.

Buru ezagunak ageri dira. Gaurko lehenak. Hauek ez dira hain urrundik etorri, hamar kale haratago dagoen apartamendu eder batetik baizik. Bat irribarre egin didan emakume eder bat da – hezurretaraino nauka-, eta bestea zuzenean korrika etorri den mutikotxoa. Zigarroa

harrika bota dut, eta txikitoa besotan hartu.

- Aaaaaaiiii... -oihua prestatzen ari da, eta besarkatu nauenean eztanda egin du.- ...
taaaaaaaa!!

- Kaaaixooo! -erantzun diot, irribarrea ahoan. Neroni harritu nau irribarreak.- Ba al duk
gogorik aita entzuteko?

- Bai -bota du, hortz txuri eta esnezkoak erakutsiz.- Eta amatzok ere bai.

- Kaixo -musu eman diot, eta zigarroaren hatsa nabaritzean, errieta begirada labur bat
eskaini dit, arrazoi guztiarekin gainera.- Ikusi al ditun ama eta aita?

- Aireportura iritsi direla esan zidatek bost eta erdietan.

- Orduan gutxi tardatuko ditene -txirrina entzun da eraikinaren barrutik. Lanerako garaia.-
Ni barrura noan. Egun garrantzitsua dun -eta irribarre egin dut, eta semeari ere musu
eman diot masailean.

Jada orkestrako kidea eta biok eskaileretan behera goazela, gaztetxoak oihu egin dit
kanpotik.

- Zer jo behar duzue?!

- Gustav Holst-en The Planets! -erantzun diot, azentu britainiarra ahalik eta ondoen
imitatuz. Bere irribarrea ikusita, esango nuke gustatu zaiola nire erantzuna.

Eta eskaileretan behera noan heinean, lehenago ikusi ez dudane xehetasun garrantzitsuaz
ohartu naiz. The Planets.

LAU: Garai Zaharraren orena

Eta begira, hurbilago, askoz hurbilago, esfera erraldoiak, beti amaitzen eta berrabiarazten
den jolas-toki geldiezinean, eta ikusi haien gainazala nola aldatzen den, eta haien nukleoa eta
konposaketa nola transformatzen diren. Begira eta ikus itzazu, inguruan biraka dituzten beste
gorputzen eskuetatik helduta dantzan dabiltzan puxtarrien pare.

Ahul nabari dut gorputza gaur, egunero lez. Baina belaunek ohi baino gehiago pisatzen dute,
burmuina ohi baino motelago dabil. Berrogeita bost urte inguruko gizon dotore batek, zazpi
urte inguruko haurrari eskutik oratuta, egongelako lurra zapaldu du, eta ahots sakon eta
jostariz hitz egin.

- Ale, Danel, emaiok musu aitonari.

Eta Danel aitonarengana hurbildu da, eta patxo bat eman dit aurpegi zimurtuan. Irribarre
batekin erantzun diot, eta nik ere patxo bat eman diot aurpegi leunean.

- Esan agur -gehitu du gizonak.- Esan agur aitonari.

Agur esan du, eta amaren bila joan da, egongelatik kanpo, ene begirada nekatuak haren
ibilera arin eta alaia ozta-ozta jarraitzen duen bitartean.

- Hurren arte, aita -besarkatu egin nau gizonak. Nik ere besarkatu egin dut.- Etorriko gara
datorren asteburuan.

- Zain egongo nauk -erantzun diot, karkara inozo eta txiki baten ostean.

- Zaindu eztula -musu hotz baina sentitu bat eman dit, eta joan egin da. Jantzitokia

atontzen ari den bere amari ere agur esan dio, eta musu eman. Eta handik hamar segundo eskasera, etxeko atea nola itxi den entzun dut.

Zintzurra bustitzeko beharra sentitu dut, eta hozkailutik azken erosketako Don Perignon Rosea hartu dut. Edalontzi bat erdiraino bete eta egongelara itzuli naiz, bertako mahaiaren gainean dagoen orri zuri tintaz zikinduan jartzen duena irakurtzera.

“Begira han, urrunean... ; Zu ere haziko zara... ; Aditu iezadazu... ; Eta, begira, hurbilago...”

Konprenitu nuen, bideko tokiren, punturen batean. Ikasi nuen. Eta zoriontsu izatea lortu dut azkenean. Sekula ez dut espazio-ontzirik hartu. Ez dut nor edo nor den inork, itxuraz derrigorrean duen Wikipediako orrialde propiorik.

(Besaulkitik altxatu naiz. Nataleri –oraindik itsu-itsuan maite dudan emakumeari- musu eman diot, eta berak niri. Pasiozkoa izan da. Goiko pisura noa).

Baina maite ninduen familia hauts bihurtzen ikusi nuen heinean –horrek ekarri zizkidan negarrak eta dramak!- maite nauen familia bat eraikitzea lortu dut, gustatzen zaidan ogibidetik janez bizi izateko beta izan dut –eta eskertu dut hori- eta bizitzak eskaini dizkidan gazi-gozoak bizitzeak izan du xarma, eta, aukera izanez gero, berriz dastatuko nituzke lehen bazkaria, lehen eskola eguna, lehen musua, lehen porroa, lehen erlazio serioak, lehen lan eguna, lehen –eta azken- ezkontza, lehen aitatasuna –eta atzetik etorri zirenak-, lehen une txiki eder haiek guztiak, eta bigarrenak, eta hirugarrenak, eta puntu honetara iritsitakoan, “berriz” esango nuke, eta berriz dastatu haiek guztiak eta tartean etorri ziren atal mingotsak.

(Goiko gelan sartu naiz).

Baina dena, dena, dena, dena da iragankorra eta ni, Jupiterren handitasunetik edo Neptunoren mistikotasunetik hain urrun dagoen gizaki hutsa, zer esanik ez.

Nire aurrean hamar urteko mutil koxkor bat dago, burua atzera botata, matematikako koadernotxoa idazmahaian irekia eta burua izarretan –planetetan- duela. Alboan duen biolinaren zorroa jasotzen saiatu da, baina bere besoa ahulegia da. Gaur nire belaunak bezala. Bere alboan jarri naiz, eta lagundu egin diot. Biolina atera du eta jotzen hasi da.

Ez nau ikusten, baina esango nuke, nola edo hala, badakiela bertan nagoela. Irribarre egin dut eta gelatik atera naiz. Baina oina kanpoan jarri baino lehenago, joan baino instant bat lehenago, atzera begiratu dut.

Eta lehen idazmahaia, matematikako koadernotxoa eta hori zurbilez pintatutako hormak zeuden lekuan, mutil koxkor bat ageri da, Martitzen, nork daki zenbat aurpegi ezagunen aurrean inoiz inon eskainitako kontzerturik gogoangarriena eskaintzen.